



2026ko ekainak 28

LGTBIQA+ kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Eguna
Adierazpen instituzionala

Beste urte batez, LGTBIQA+ kolektiboak gure gizartean dagoen aniztasuna ikusgarri egingo du, eta pertsona askoren eta mugimendu sozialen ahaleginari esker lortutako eskubideak gogorarazi eta defendatuko dituzte gure kaleetan.

Beasaingo Udalak sexu-aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren alde egiten du eta pertsona guztientzako gizarte irekiagoa, errespetuzkoagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko konpromisoa berritu nahi du adierazpen honen bidez.

Harrotasun Eguna ez da kolore hutsa, ospakizunerako, memoriarako eta aldarrikapenerako eguna da eta hausnarketarako aukera ematen digu.

Aurrerapen asko lortu diren arren, **Lesbiana, Gay, Transexual, Bisexual, Intersexual, Queer eta Asexual** pertsona guztiek ez dituzte egoera berberak bizi. Kalteberatasunak eta diskriminazio-arriskuak ez die kolektiboko kide guztiei berdin eragiten. Sexu-orientazioa, genero-identitatea, jatorria, etnia, adina, ingurune sozioekonomikoa, desgaitasuna edo osasun mentala bezalako faktorek oso modu desberdinetan agertzen dira gizabanako bakoitzean eta ez dute modu isolatuan eragiten, gurutzatu egiten dira, ahultasun-egoera desberdinak sortuz.

Honekin batera, azken urteotan kezkaz ikusten ari gara diskurtso jakin batzuek dagoeneko lortutako eskubideak zalantzan jartzen dituztela. Ideia horiek, eragin zuzena du kalean eta ondorioz espazio batzuk ez dira seguruak pertsona LGTBIQA+ askorentzat, askatasunez bizitzeko eskubidea mugatuz.

Horren aurrean, Beasaingo Udaletik gogorarazi behar dugu gizarteko espazio guztiak anitzak eta inklusiboak izan behar dutela. Kaleak, erakundeak, ikastetxeak, kultur guneak eta komunitate espazioak pertsona guztiek berdintasunean egon eta parte hartu ahal izateko lekuak izan behar dira.

Aniztasuna ez da mehatxu bat, ezta salbuespen bat ere. Gure gizartearen errealitatea da, eta denon ondarea.

Hori dela eta, Beasaingo Udalak irmo gaitzesten ditu LGTBIQA+ kolektiboaren aurkako diskriminazioa eta gorroto-delituak. Era berean, sexu-aniztasuna babesteko, gune publiko seguruak bermatzeko eta Jabetze Eskolan prestakuntza eta eztabaida-jarduerak bultzatzeko konpromisoa hartzen du.



Beasaingo Udala

Beasaingo udaleko talde politikoak lanean jarraituko du eskubide eta aukera berdintasunaren alde eta pertsona guztientzako gizarte bidezkoagoa, inklusiboagoa eta anitzagoa eraikitzeko.